



## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIEI LAGUNTZA EMATEKO ERAKUNDEARTEKO LEHENENGO PLANAREN FISKALIZAZIOA, 2003-2005**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak hala eskatuta, Seme-Alabak dituzten Familiei Laguntza Emateko Erakundearteko Lehenengo Planaren gaineko txostena mamitu du. Lanaren mamia honako hau izan da:

- Planean onartutako helburu, neurri eta adierazleen azterketa eta horien betetze maila.
- Planaren helburuak eta neurriak betetzeko gauzatutako ekintzen analisia, horiek Planean ezarritakoari egokitzea eta kudeatzeko jarraitutako prozedura.
- Planean eduki ekonomikoa duten datuen analisia.

Txostenak, Osokoaren kideek aho batez onetsi dutenak, lehenik eta behin Plana bera deskribatzen du eta zehaztasunez adierazten lau multzoetarik bakoitzean hartzen diren neurriak:

1. Lana eta familia bateratzea
2. Seme-alabak dituzten familiei laguntza emateko zerbitzuak
3. Laguntza ekonomiko eta fiskalak
4. Sentsibilizazioa

Epaitegiak ondorio orokor modura azpimarratu du ezinezkoa dela gastuaren egokitasuna helburuen lorpen mailaren arabera ebaluatzea, izan ere Planaren helburua osotasunean: “familiek libreki erabakitzen duten seme-alaba kopurua izateko eragozpen ekonomikoak eraistea” orokorra baita eta horrek jarraipena eta ebaluazioa egitea zaildu egiten baitu. Honez gain, ez ditu ez adierazleak ez ebaluazio metodo bat finkatzen eta aurreikusitako aurrekontuak zenbateko osoa kuantifikatzen du, balioetsitako laguntza kopurua eta horien osaera batere zehaztu gabe.

Ondorio orokorrak ondorio, HKEEk xehetasunez aztertu ditu helburu partzialak eta hartutako neurriak eta lan horretatik sortu diren arazo guztiak mahairatu ditu, dela



antolamendu, laguntzen kudeaketa, aurrekontu kostu eta Planak alderdi ezberdinetan izan duen eragina aztertzeko egoki iritzi diren hainbat adierazleren analisiari dagokionez.

Hona hemen Plan honek besarkatzen dituen neurrien betetze maila, hainbat administrazio eta gizarte eragilek garatu dituztenak:

- Lana eta familia bateratzeko neurriak 2002ko abuztuan sartu ziren indarrean.
- Haurtzaindegien betetze-maila 2 eta 3 urteko adin-tarteari dagokionez, aurreikusitakoa baino handiagoa izan zen; gainerako bi adin-tarteetan, 5 hilabete-urtebete eta 1 urte-2 urteko tartean, aurreikusitako betetze-maila lortu ez zen arren, igoera demanda potentzialean izandakoa baino handiagoa izan zen.
- Laguntza ekonomikoei dagokienez, 2. seme-alabari emandako laguntza 100 euroan murriztu arren, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak egindako gomendioak onartu izanaren ondorioz, hau da, diruz lagungarritzat hartzeko 2002ko urtarrilaren 1a baino lehenago jaiotako jaiotza multipleak edo hirugarren edo hurrengo seme-alaben jaiotzak, egiazko kostuek hasiera batean aurreikusitakoak % 23an gainditu zituzten.
- 2003tik aurrera egindako sentsibilizazio kanpainak irabazi asmorik gabeko erakundeek egin zituzten eta horretarako Eusko Jaurlaritzak diru-laguntza lerro bat onetsi zuen, sentsibilizazio egitasmoak finantzatzeko zituena.

Honela, bada, neurri guztia hauek exekutatzeke kostuak guztira 438,3 milioi euro egin zituen; kopuru honetan barne hartzen da 156 milioi euroan baliotutako diru-bilketa txikiagoa, hiru lurraldeetako Foru Arauetan ezarri ziren zerga-dedukzioen ondorio. Exekuzio honek Planaren aurreikuspen ekonomikoa % 32 areagotzea ekarri zuen.